

Pentsiodun behartsuenak zigortzeko artea

“Hainbesteko zurrunbiloa hilean sei kafe adina euro ordaindu behar direlako?”.
Zer da bada hilean 8 euro ordaintzea 600 bat euroko pentsioa duenarentzat?
Nafarroan pentsiodunen %40 inguruk 650 euro baino gutxiago jasotzen dute.
Euskal Autonomia Erkidegoan 1.000 eurotik beherako pentsioa dauka %73ak.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

NAFARROAKO GOBERNUAK 2012ko uztailaren 1etik botiken berrordainketa indarrean dauka. Eusko Jaurlaritzak, helegitea tarteko, 2013ko uztailaren 1a arte ez du ezarri. Bi administrazioek erantzun diferentea eman diote Espainiako Gobernuaren dekretuari: Nafarroako Gobernuak agindua bete beste erremediorik ez dagoela argudiatu du, eta bere horretan onartu du herritarrek %5 baino %10 ordaintzea sendagaiak erosterakoan. Eusko Jaurlaritzak aldiz, dekretua onartu du joan den asteen eta horri esker 18 milioi euroko diru-laguntzak banatuko ditu berrordainketak gogorren jotako herritarren artean. 400.000 herritarri eragingo dio Jaurlaritzaren erabakiak: urtean 18.000 euro baino gutxiago jasotzen duten pentsiodunei, laguntza ekonomikorik ez duten langabetuei, eta osasun sisteman ez dauden etorkinei. Uztailaren 1etik egindako ordainketak eskuratzeko aukera ere izango dute kalte-tuek. Jaurlaritzaren helburua osasunean berdintasuna bermatzea eta gehien behar dutenei gizarte laguntza ematea da.

Ondoko lerroetan, hainbat pertsonak Espainiako Estatuaren dekretua baloratu du, eta kontuan hartu haiek ez zutela orain Jaurlaritzak hartutako neurriaren berri.

Batez ere pentsiorik kaskarrenak dituztenak ari dira berrordainketaren ondorioak jasaten. Zeren, esan dezagun, pentsiodunen giza taldea ez da nabarmentzen hain justu, hileroko soldata bikainagatik. Medikuek agindutako sendagaiak farmazian jasotzeari utzi-

tako jubilatuak badira. 400 euro jasotzen dituenak jan egingo duen, neguan berogailua piztuko duen ala botikak erosiko dituen erabaki behar du. Eman dezagun 80 urteko amona hiru tratamendu egiten ari dela eta hamar botika hartzen dituela egunean. Farmazian esan diote 15 euro balio dutela. Amonek dena ordaindu beharko du eta hiru hilabeteko tartean Nafarroako Gobernuak 8 euro arteko aldea itzuliko dio. Alegia, hilabete bukaerara iristeko lanak dituenak dirua aurreratu behar du. Botiketako langileak honelako galderak entzuten ohitu dira: “Zein botika da inportanteagoa, hartzen ari naizen hau ala beste hau?”, “kolesterolaren sendagaiak utziko ditut ala tentsioarenak?”.

Hilean 400 euroko pentsioa duenak jan egingo duen, neguan berogailua piztuko duen ala botikak erosiko dituen erabaki behar du

Botika ez da kontsumo produktua

Angel Garay Gipuzkoako Sendagaigileen Elkartearen lehendakaria da. Berrordainketa dela eta lan handia izan dute farmazia sareko sistema informatikoa aldatzen. Izan ere,

Eusko Jaurlaritzak hileko gehienekoa baino gehiago kobratu eta hurrengo hilabeteetan herritarri dirua itzultzen ibiltzerik ez zuen nahi. Sare informatikoa moldatuta, bezeroek dagokien gehienekoa baino gehiago ez dute ordaintzen. Beraz, lehen aipatu dugun amona nafarra Gipuzkoan biziko balitz, hilean kolpera 15 euro aurreratu beharrean 8 ordainduko luke eta kito. Sendagaigileen Elkartea ez dago ados Espainiatik ezarri duten berrordainketarekin eta derrigortuta daudenez ahal duten neurriarik onenak hartuko dituzte.

Garayren ustez, botikaren egitekoa azpimarratu behar da: “Sendagaia ez da kontsumo produktua, eta hala balitz bezala ekitea hanka-sartze handia da. Egia da botika inbertsioa dela, eta administrazioak euro bakoitzeko efizientzia kalkulatu behar du. Botikak ez dira ez gehiegi ez gutxiegi erabili behar, eta bietarik gertatzen da. Alor ekonomikoa dago batetik, eta bestetik gizartearen eta biztanle bakoitzaren osasuna. Bezeroek zer kontsumitzen duten milimetrora neurtuta daukagu EAEn. Datuok edukitzea ona da, baina ba al dakigu inbertsio horrek gizartearen eta biztanle bakoitzaren osasuna hobetzeko balio izan al duen?”. Hiru hilabeteko datua aterata dago: herritarrek botika %5 ordaindu zutenean, hiru hilabeteen 750.000 euro inguru bildu ziren, %10ekoa ezarrita 1.712.170 euro.

Gehien behar dutenak ezkutuan daude

Jose Mari Agirresarobe Duintasuna elkarte gipuzkoarreko kidea da. Pentsiodunak biltzen dira eta hainbat ekimenetan hartzen dute parte. Berrordainketarekin ez daude ados, horren lekuko dira bi hilabeteen jasotako 28.000 sinadurak. Bizkaian eta Araban ere sinadura bilketak egin zituzten bertako elkarteek. Duintasuna elkarteak ez bezala, hiri-buruei jarri zieten arreta berezia. Gipuzkoako sinadura kopurutik urrun geratu ziren. Agirresaroberen ustez, EAEtik zenbat eta gehiago urrundu berrordainketaren kontrako mugimendua are eta ahulagoa da, “pentsiodunen soldatarik handienak EAEn daude eta mugimendurik indartsuena ere bai”. Behar larririk ez dutenak dabilta nonbait botikak gutxiago ordaintzeko borrokan. Eta hilaren bukaerara iristen ez dena non dago? “Behar gutxienean dutenak ari dira lanean. Gaizki daudenei aurpegia jarri nahi diegu, baina ez dira guregana etortzen. Ezkutatzeari hainbestearainokoa da non elkarteetan bertan ere bai baitakigu zenbait pertsona beharrean daudela eta laguntza eskaini eta ez dute onartzen, ‘nik ez dut dirurik nahi’. Justizia sozial kontua da, baina lotsatuta, konplexuz beteta daude, limosna emango balitzaie bezala. Kultura horrek zantpututa dauka jendea, ez du agertu nahi. Immigranteek ez dute horrela bizi eta gehiago baliatzen dituzte guk geuk ere baditugun eskubideak”.



Paperezko errezeta hiltzerian da. Txartel elektronikoa bidez sendagai kontsumoa gehiago kontrolatuko da. Txartelak ordea, ez gaitu libratuko berrordainketaren ondorioz botikak gehiago ordaintzetik.

Sebastian Rosino Sasoia elkartearen kidea da. Iruñerrian, Sakanan eta Burlatan ari dira lanean duela zazpi bat urtez geroztik. Elkartearen kide gehienak hilabete bukaerara iristeko moduan izaten dira, “pentsio baxuenak ez dira ikusten”. Rosinoren ustez, badira hiru arrazoi ezkutukoaren jarrera ulertzeko. Lehenik, batzuk beldurtuta bizi dira oraindik eta horren adierazgarri da elkartearen kide bati kalean gertatutakoa. Berrordainketaren aurkako propaganda banatzen ari zen eta emakume bat gerturatu zitzaion: “Ez dut inork ikusterik nahi, bestela agian pentsioa kenduko didate”. Hilean 400 euro baino gutxiago paktikaritzen zituen andreak, “Francoren herentzia bizirik dago”. Bigarrenik, norberak bere burua erruduntzat hartzeraz jotzen du. Ez dela iristen esateak lotsa emango dio, sinetsita dauka nahiz eta bizitza osoan lan asko egin, zerbaitegatik ez direla hil bukaerara iristen, zeren albokoak iristen dira.

Nola eragin die nafar pentsiodunei berrordainketak

Nafarroako Pentsionistak Martxan elkarteak, hainbat sendagile eta farmazialariren laguntzaz, azterketa egin zuten 2013ko otsailean. Espainiako Gobernuak ezarritako berrordainketa farmazeutikoaren eta gizarte-segurantzatik ateratako 417 sendagairen ondorio ekonomikoak neurtu nahi zituzten. Pentsiodunek usu izaten dituzte hiru gaixotasun eta haientzako tratamenduak hartu zituzten kontuan. Hona bi ekarri ditugu: alzheimerra eta bronkitisa (biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa). Ondoko lerroetan dituzue Pentsionistak Martxanekoek egindako kabalak:

Bronkitisa (BGBK Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa)

Botika	Prezioa	Berrordainketa (%10)
Losartan	8,34 €	0,83 €
Indapamida	3,12 €	0,31 €
Formoterol	23,01 €	2,30 €
Budesonida	3,12 €	2,31 €
Terbasmin	7,79 €	0,78 €
Ordaindu eta itzuliko ez den dirua: 4,53 €		

**AZTERTURIKO 3 PENTSIODUN MOTA
ETA BAKOITZAK BERE ERRENTATIK
ERABILI BEHAR DUEN PROPORTZIOA**

Alarguna (650 €)	Bikotea (1.048 €)	Bikotea (1.700 €)
%0,69	%0,43	%0,26

Alzheimerra

Botika	Prezioa	Berrordainketa (%10)
Rivastigmina	184,89 €	18,49 €
Axura	208,71 €	20,87 €
Sertralina	11,68 €	1,17 €
Lorazepan	1,72 €	0,17 €
Risperidona	98,54 €	9,85 €
Aurreratu beharreko dirua: 49,50 €		

**AZTERTURIKO 3 PENTSIODUN MOTA
ETA BAKOITZAK BERE ERRENTATIK
ERABILI BEHAR DUEN PROPORTZIOA**

Alarguna (650 €)	Bikotea (1.048 €)	Bikotea (1.700 €)
%7,61	%4,69	%2,91
8 €	8 €	18 €
%1,23	%0,76	%1,05

Poltsikotik ordaindu eta gero, Osasunbideak gehiena itzuliko die. Errenta 18.000 eurotik behera izanda, hilean 8 euro ordainduko dute gehienez; 18.000 eurotik gora izanda, 18 euro.

Zenbait argibide

- Errenta kaskarrenak dituztenek, proportzioan, ahalegin handiagoa egin behar dute botikak ordaintzeko
- 650 euro jasotzen dituen alargunak 1.700 euro jasotzen dituenak baino 2,8 aldiz ahalegin handiagoa egiten du botiketan
- Nafarroan batez besteko pentsioa 964,84 eurokoa da. %70ak 1.000 eurotik beherako errenta du; %40ak 650 eurotik beherakoa
- Pentsiodun berak gaixotasun bat baino gehiago izan ditzake eta bikotekideak ere botika beharra izan dezake

Iturria: Pentsionistak Martxan, kazetariak ARGIArako egokituak.

Hirugarrenik, egoera larriek eraginda arazo psikologikoak ugaltu dira. Gainera, familia ere mantendu behar duten kasuetan akituta eta estututa daude.

Aurpegirik ez dutenen artean emakumeen egoera azpimarratu nahi du Agirresarobek, eta ez derrigorrez emakume alargunena. 1.000 eurotik gora jasotzen dutenak gutxiengo dira. Lan asko egin arren, apenas kotizatu duten, ondorioz pentsioak oso baxuak dira. Emakume alargunek, senar zenaren pentsioaren arabera, pentsio hobexegoa izan dezakete, nahiz eta erdiarekin geratu. Esate baterako, senarrak 1.600 euroko pentsioa bazuen alargunak 800 euro jasoko ditu hilero.

Beste kontu bat da azken urteotan pentsio asko zati bi, hiru eta lau egin behar direla. Agirresarobek ezagutzen du ezaugarri horietako familia bat: senarrak 1.200 euroko pentsioa du, emazteak soldatarik gabe egiten du lan etxeko negozioan eta bi seme-alabek urteak daramatzate langabezian. “Zatiketa egiten baduzu bakoitza 300 eurorekin bizi da. Halaxe bizi dira”.

Duintasuna elkarteak aldarrikapen garbia du, pentsiodun guztiak gutxienez 1.000 euro bil ditzatela, “EAEko batez bestekoa, 1.200 euro, engainagarria da, 630.000 pentsiodunetik 500.000ak 1.000tik behera jasotzen delako. Ez dugu uste gaur egungo ekonomiaren

Botiken prezio igoera, gizarte-segurantzatik atera ondoren

	Sendagaia	Lehen	Orain	Diferentzia
	Voltarén	3,12 €	4,95 €	%36,96
	Duphalac	5,09 €	5,60 €	%9,1
	Almax	4,65 €	6,95 €	%33,09

Iturria: Pentsionistak Martxan, kazetariak ARGIArako egokituak.

Sendagaiak erosteari utzi diote Madrilen

Madrilgo Osasun Publikoaren Aldeko elkarteak 2012ko hondarrean 992 pentsioduni inkesta egin zien. Berrordainketa ezarri eta errezetako euro bat agindua iritsi baino lehen egin zen inkesta.

■ Adina (batez beste)	74,81 urte
■ Erabilitako sendagai kopurua (batez beste)	6,88
■ Hilero berrordainketa (batez beste)	11,18 €
■ Errenta (batez beste)	901,19 €
■ Senide guztien artean etxean dauden diru-sarrerak (batez beste)	1.026,77 €
■ Agindutako botikak hartzeari utzi diotenak	%16,83
■ 417ko zerrendatik kanpora geratu diren sendagaiak hartzen zituztenak	%60,08
■ Hartzen jarraitzen dutenak	%25
■ Hilero ordaintzen dutena	7,06 €
■ Botikak hartzeari utzi dioten pentsiodunak errentaren arabera	
400 euro baino gutxiago	%27,29
400-800 euro	%13,69
800 eurotik gora	%1,5



barruan pertsona batek bizitza duina izan dezakeenik 1.000 eurotik behera jasota”.

Helburua ez da murriztea, pribatizatzea baizik

Krisia du aitzakia Espainiako Gobernuak osasun zerbitzuetan ere murrizketak ezartzeko. Dirua aurreztu behar dela diote. Rosinoren iritziz, sakoneko helburua ez da hori, osasun zerbitzuak pribatizatzea eta industria farmazeutikoek gehiago irabaztea baizik. “Krisian gaudela eta gizarteak diru asko xahutu duela esaten digute, eta horregatik ordaindu behar ditugula gehiago botikak, eta anbulantzia eta protesiak ere gure kontura

izango direla. Osasun zerbitzuak esku pribatuek kudeatzea nahi dute eta sistema publikoan ondo dabilena bide okerrean jartzeko gai ere badira”. Rosinok, nafarra izaki, Iruñeko erietxeko janari zerbitzua ekarri du hizpide. Janariaren kudeaketa esku pribatuetan geratu denetik etengabe daude protestak zerbitzua kaskarra delako. Rosinoren ustez, ez dute pribatizatu dirua aurrezteko eta eraginkorragoa izateko, baizik eta herritarrek ospitale publiko utzi (zein gaizki ematen duten jaten!) eta pribatura hanka egiteko. “Zentzugabea da pentsatzea pribatua merkeago ateratzen dela publiko baina. Publikoak ez du dirurik irabazi behar, pribatuak bai. Ezinezkoa da pri-

SENDAGAIEN BERRORDAINKETA

batua merkeagoa izatea, baldin eta kalitatea mantendu nahi bada”.

Bronkitisa baino katarroa sendatzea ez ote da hobe?

Berrordainketa sosak aurrezteko egin dutela esan zaigu, baina orain arte erreportaje hone-tan hitz egin duten guztiek uste dute aurrezte-a oso zalantzazkoa dela. Ezinbestekoa denean sendagaiak ez hartzeak ondorioak ditu. Gaixo kronikoen adibideak erakusten du hori. Batzuetan mila arrazoi tarteko sendagaiak har-tzeari uzten diote edo behar ez den moduan hartzen dituzte, eta despiste horiek zuzeneko ondorioak dituzte haien osasunean. Gaixo kronikoa alde batera utzi eta har dezagun kata-rro txorora harrapatu duen jubilatua. Medikuak agindutako errezeta ez erabiltzea erabaki du, hotzaldian berogailua piztea nahiago duelako. Burutik beherakoa bronkitisa bihur daiteke eta estuasunean larrialdietara joateko ez du ezer behar. Garestiagoa da bronkitisa sendatzea katarroa kentzea baino, eta garestiagoa da larrialdietako medikua familia sendagilea baino. Adibide horixe erabili du Itziar Irazaba-lek berrordainketaren baliogabetasuna azaltze-ko. Irazabalek pertsona guzteei osasun eskubi-dea bermatzearen aldeko foroaren izenean hitz egin digu, baina antzematen zaio Mundu-

ko Medikuek elkarteko kidea dela. Berrordain-keta dirua aurrezteko baino oinarrizko eskubi-de baten urraketa dela iritzi dio, eta osasun arretarako eskubidearen urraketan berrordain-keta adibide bat baino ez dela. Esate baterako, osasun txartelaren bidez, baldintzak betetzen ez dituzten hainbat herritar zerbitzu publiko-tik kanpo geratu dira. Immigranteak ditu gogoan, “aberatsen eta pobreen arteko jokia dago, ordaintzeko badaukazu osasun zerbitzu onetara joko duzu, eta ez badaukazu ez duzu izango. Hiltzen bazara ere berdina da, pobrea zara”. Berrordainketak bere indartxoia izan du batez ere pentsiodunen protestetan, “denok goaz botikara, edonori egokitu dakioke, eta horregatik du sona. Aldiz, osasun sisteman nor sartzen den eta nor ez, horrek ez du hala-ko hedapenik izan”.

Irazabal gehien beldurtzen duena ez da berrordainketa, Espainiako Gobernua osasu-nean, hezkuntzan... hartzen ari den traza bai-zik: baldin badaukazu ondo biziko zara eta ez badaukazu ez. Bere ustez, urte luzez izan da eredugarria orain gainbehera datorren Espai-niako Estatuko osasun zerbitzua. Eusko Jaurlaritzak ere Osakide-tza ikur gisa izan duela iritzi dio, eta hala mantentzeko ahalegine-tan dabilela. ■



*Bertsolari
Txapelketa
Nagasia 2013*

FINALAURREKOAK

MAULE-LEXTARRE
Ororena ezker pareta / Azaroak 30, 17:30ean

ANTOLATZAILEA  LAGUNTZAILEA 

www.bertsotzale.com